



PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

Kontratua: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAK SUSTATUTAKO PROIEKTU ETA OBREN
INGURUMEN-KUDEAKETARAKO LAGUNTZA TEKNIKOA

Zuzendariordetza kudeatzailea: JASANGARRITASUNA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

AURKIBIDEA

1.	KONTRATUAREN XEDEA	3
2.	EGIN BEHAR DIREN LANEN DESKRIBAPENA	3
3.	GIZA BALIABIDEAK	9
4.	LANAK NEURTZEA ETA ORDAINTZEA	13



1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (BBUP) sustatutako azterlan, proiektu eta obren ingurumen-kudeaketarekin lotutako lanak egiteko laguntza teknikoa.

Kontratazioaren ondorioetarako, hiru lotetan banatzen da zerbitzua:

- **1. lotea:** Obra eta proiektuen ingurumen-kudeaketa orokorra.
- **2. lotea:** Lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari buruzko araudia aplikatzearen ondoriozko lanak.
- **3. lotea:** Landare-espezie inbaditzaileak kendu eta kontrolatzeko eta leheneratze ekologikoko lanak.

2. EGIN BEHAR DIREN LANEN DESKRIBAPENA

2.1. Lurralde-eremua

BBUPen jarduketa-esparrua Bizkaiko Lurralde Historikoa da.

Adjudikaziodunak bere instalazioetatik bertatik emango ditu zerbitzuak (kabinete-lanak), hargatik eragotzi gabe bilerak BBUPen bulegoetan edo behin betiko edo behin-behineko (obrak) beste zentro batzuetan bilerak egin behar izatea.

Landa-lanak egiteko (obrarako bisitak, ingurune fisikoaren errekonozimendu-ikuskapenak eta abar), joan-etorriak egin beharko dira, eta horiek adjudikaziodunaren kontura izango dira.

2.2 Egingo diren lanak

Egingo diren lanak kategoria orokor hauetan sailkatzen dira:

- Ingurumenaren arloko aholkularitza orokorra proiektuak idazteko faseetan (aurretiko azterlanen fasea barne) eta obrak egitean.
- Ingurumen-dokumentuak berrikustea eta horiek hobetzeko proposamenak egitea.
- Ingurumen-azterlan eta -proiektuak egin eta idaztea.
- Ingurumen-zaintza obrak egitean.
- Lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari buruzko araudia aplikatzearen ondoriozko lanak.
- Landare-espezie inbaditzaileak kendu eta kontrolatzeko lanak.
- Leheneratze ekologikoko lanak.

Kategoria orokor horiek lote bakoitzerako zeregin zehatz hauetan banaka daitezke:



2.2.1 1. LOTE A

Azterketa- eta proiektu-faseetako lanak:

1. Proiektu eta planei ingurumen-araudi orokorra eta sektoriala aplikatzeari buruzko aholkularitza orokorra.
2. Teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren soluzioak —dela proiektu-fasean dela obra-fasean hartu beharrekoak— hartzeko aholkularitza, gutxienez murrizteko ingurumenaren gaineko inpaktu negatiboak.
3. Ingurumen-inpaktuaren azterketak eta antzeko dokumentuak, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko azterlanak eta proiektuen ingurumen-izapidetzeari lotutako beste edozein dokumentu idaztea.
4. Proiektu eta planak egiteko fasean eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren fasean behar diren bestelako ingurumen-dokumentuak idaztea.
5. Proiektu eta planen ingurumen-izapidetzean beharrezkoak izan daitezkeen edo organismo eskudunek eska ditzaketen azterlan espezifikokoak egitea (adibidez, fauna- edo flora-espezie jakinen eraginaren azterlanak; azterlan arkeologikoak, akustikoak, paisaiarenak eta abar).
6. Proiektu eta planen ingurumen-izapidetzearen jarraipena egitea eta kontsultak eta, besteak beste, errekerimendu eta alegazioei erantzuteko txosten-dokumentuak egiteko laguntza.
7. Hirugarrenek egiten dituzten ingurumen-dokumentuak berrikusi eta eguneratzea eta horiek hobetzeko proposamenak egitea.
8. Obrak egin aurreko azterlan eta jardura arkeologikoak egitea.
9. Ekologia eta paisaia leheneratzeko proiektuak idaztea.

Obra-faseko lanak:

1. Kontratatutako obrak egin bitartean egin behar dituen ingurumen-dokumentuak berrikustea eta horiek hobetzeko proposamenak egitea: obrako ingurumen-plana, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko plana eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren azken txostena.
2. Kokalekuak obrak hasi baino lehen zuen egoerari buruzko txostena egitea. Txosten horrek ingurune fisikoaren ikuskapenaren ondorioak jaso behar ditu (ingurumenaren aldetik sentikorrak diren elementurik dagoen, hondakinik dagoen, landare-espezie inbaditzaileak dagoen eta abar), bai eta kontratatutako obra egiten den bitartean aintzat hartu behar dituen ingurumen-baldintzatzaile guztien analisia ere. Obrak egiten diren bitartean jarraipen-txostenak egingo dira hilero; bada, hasierako txostena izango da hori.
3. Obra-faseko ingurumen-zaintza, gutxienez hamabost egunez behin obra bisitatzea barne (baliteke gehiago egin behar izatea, zer behar dagoen). Helburua da obrako ingurumen-



planean eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenean edo txostenean, bai eta baimen sektorialetan ere, aurreikusten diren prebentzio- eta zuzenketa-neurri guztiak behar bezala hartzen dituela obren adjudikazioa duen kontratistak. Gainera, kontratistak behar diren baimen guztiak eta hondakinen lagapenei, materialen jatorriari, makinaren markatzei eta abarri buruzko egiaztagiri guztiak dituela bermatu beharko du zaintzak.

4. Ikuskapen-akta egitea. Bertan, ikuskatu diren elementu nagusiak eta ikuskapenaren ondorio nagusiak labur-labur deskribatuko dira eta dokumentazio grafiko nahikoa emango da (eskala egokian egindako plano eta krokisak, eta argazkiak). Ikuskapenak egin eta ahal bezain azkar entregatu beharko dira aktak. Nolanahi ere, ikuskapena egiten denetik akta entregatzen den arte ezingo dira hiru egun baino gehiago igaro.
5. Obren ingurumen-ikuskapenaren txostenak egitea. Hilean behin egingo dira gutxienez, eta hileko azken ikuskapena egin eta hurrengo bi hilabeteetan entregatu beharko da. Txostenek, batetik, behar adinako bereizmena/zehaztapena duen informazio grafikoa (eskala egokian egindako argazki eta plano tematikoak) eta, bestetik, obren aurrerapenaren eta obraren ingurumen-alderdien kontrolaren ondoriozko ondorio nagusien deskribapena jaso behar dituzte.
6. Ingurumen-inpaktuak gutxitzeko obretan aplikatu behar diren prebentzio- eta zuzenketa-neurrien proposamena (soluzio tekniko bideragarriak).
7. Obrak egiten diren bitartean ingurumen-gorabeherak ebazteko laguntza (esate baterako, lurzoru kutsatuak, isuriak edo aztarna arkeologikoak agertzen badira edo hirugarrenek kexak edo salaketak egiten badituzte eta abar).
8. Jarduera arkeologikoak egitea; tartean, aholkularitza tekniko ematea eta txostenak egitea (ikuskapen bakoitzaren aktak eta egindako jarduera arkeologikoen azken txostena egitea).
9. Obraren amaierako faseko ingurumen-lehenegiazteko, -landareztatze eta -integrazioko lanak gainbegiratzea; tartean, horiek egiten diren bitartean aholkularitza tekniko ematea (landarearen kalitatea kontrolatzea, landatzea eta abar) eta landatu diren landareen eboluzioaren eta horiek paisaian integratzearen jarraipena egitea epe motzera eta ertainera (kontratuan zehar). Zeregin horietako bat da obrek eragindako inguruen jarraipena egitea, landare-espezie inbaditzaileak dagoen detektatzeko. Bildutako informazioa grafikoki (poligono, lerro eta puntuekin) eta geoerreferentziak baliatuz irudikatuko da denek erabiltzeko fitxategietan, informazio geografikoaren sistemetan (shp, kml, kmz, gpx...). Txostenak egitea, hala behar bada.
10. Egindako obra bakoitzaren azken txostena egitea; jarduketak, gorabeherak eta abar jasoko dira horretan. Gainera, obrak hasi aurreko egoera eta azken egoera konparatu beharko dira txosten horretan ere.



11. Obrako ingurumen-adierazleen (eraikuntza- eta eraipen-hondakinen kudeaketa, bigarren mailako materialen erabilera, leheneratutako azalerak, landare-espezie inbaditzaileak eta beste batzuk) jarraipena egiteko datu-baseak bete eta eguneratzea.

2.2.2 2. LOTE A

Azterketa- eta proiektu-faseetako lanak:

1. Lurzoru kutsatuen eta hondakinen arloko aholkularitza espezializatua.
2. Lurzoruaren kalitatea ikertzea, hondeatu behar diren materialak ondoen kudeatzeko bidea proposatzeko, lurzoru kutsa dezaketen jardura edo instalazioen bat duten edo izan duten kokalekuetan lur-mugimendurik egitea aurreikusten bada. Txostenak egitea.
3. Lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko txostenak, oinarriko txostenak, txosten bakarrak, hondeaketa selektiboko planak, instalazio eta eraikuntzen saneamenduari buruzko azterlanak eta antzeko dokumentuak idaztea.
4. Lurzoru aldatuei lotutako arriskuak analizatzea.

Obra-faseko lanak:

1. Lurzoru hondeatzeko lanak ikuskatzea lurzoru kutsa dezaketen jardura edo instalazioen bat duten edo izan duten kokalekuetan.
2. Instalazio eta eraikuntza industrialen saneamendu- eta eraisten-lanak ikuskatzea lurzoru kutsa dezaketen jardura edo instalazioen bat duten edo izan duten kokalekuetan.
3. Lurzoruaren kalitatea ikertzeko akreditatutako erakundeei esleitutako zereginak egitea, ingurumen-organoak lurzoruaren kutsaduraren prebentzio eta zuzenketari buruzko araudiaren esparruan egindako txosten eta baimenen baldintzen barruan, BBUPen obrei dagokienez.
4. Lurzoru aldatuaren ezaugarriak zehaztea eta horiek kudeatzeko bideak proposatzea, aurreikusi ez den kutsadura-zantzurik agertzen bada obran. Txostenak egitea.
5. Hondar-lurzoruaren ezaugarriak zehaztea, hala egin behar denean.
6. Lurzoru aldatuei lotutako arriskuak analizatzea.
7. Hondakinen ezaugarriak zehaztea.

2.2.3 3. LOTE A

1. Landare-espezie inbaditzaileak kendu eta kontrolatzea.
 - Agintari eskudunek edo kontratistak proposatzen dituenek (ezagutza berriena oinarri hartuta) zehaztutako protokoloak betetzea; kontratu-arduradunak aurrez onetsi beharko ditu protokoloak.
 - Bitarteko mekanikoak erabiltzea, ahal izanez gero, eta konposatu kimikoak erabiltzea saihestea.



2. Zuhaitz- eta zuhaixka-espezie txikiak kentzea eta zuhaitz-espezieak moztea, leheneratuko diren inguruetak lurra prestatzeko.
 3. Landareak landatzea narriatutako edo artifizializatutako inguruak leheneratzeko eta landare-espezie inbaditzaileak agertu eta garatzea saihesteko.
- Jarduketa-eremu bakoitzean dauden zuhaitz- eta zuhaixka-espezie autoktonoen (1. taula) landare txikiak erabiliko dira (1-2 izerdi), ahal izanez gero (kontserbazio-egoera onean dauden eta ezaugarri edafologiko eta bioklimatiko berak dituzten gertuko inguruak hartuko dira erreferentzia). Tokiko genotipoa izango dute horiek eta inguruko edo jarduketa-eremuetakoen antzeko baldintza bioklimatikoak dituzten tokietako haztegiak izango dira.
 - Landare-dentsitate handiak dituzten (800 unitate/hektarea, erreferentzia modura) landaketa-markoak erabiliko dira, gutxi gorabehera 0,5eko zuhaitz/zuhaixka proportzioari eutsita. Amaierako egitura egitura natural baten ahalik eta antzekoena izango da. Helburua da landare-estalkia leheneratzea eta segida ekologikoaren prozesu naturalak bizkortzea.
 - Kontratu-arduradunaren jarraibideei eta jarduketa-eremu bakoitzean idatziko diren landareztatze-proiektuei jarraitu behar zaie.

ZUHAITZAK		ZUHAIXKAK	
Espeziea	Izen arrunta	Espeziea	Izen arrunta
<i>Quercus robur</i>	Haritza	<i>Corylus avellana</i>	Hurritza
<i>Quercus pyrenaica</i>	Ametza	<i>Frangula alnus</i>	Zumalakarra
<i>Castanea sativa</i>	Gaztainondo arrunta	<i>Euonymus europaeus</i>	Basaerramua
<i>Betula spp.</i>	Urkia	<i>Cornus sanguinea</i>	Zuhandor arrunta
<i>Acer campestre</i>	Astigar arrunta	<i>Crataegus monogyna</i>	Iparraldeko elorri zuria
<i>Prunus avium</i>	Gereziondoa	<i>Prunus spinosa</i>	Elorri beltza
<i>Fagus sylvatica</i>	Pago arrunta	<i>Rhamnus alaternus</i>	Karraskila



<i>Laurus nobilis</i>	Ereinotza	<i>Sambucus nigra</i>	Intsusa beltza
<i>Taxus baccata</i>	Hagin arrunta	<i>Erica spp.</i>	Txilarra
<i>Ilex aquifolium</i>	Gorostia	<i>Calluna vulgaris</i>	Txilar arrunta
<i>Alnus glutinosa</i>	Haltz beltza		
<i>Fraxinus excelsior</i>	Lizarra		
<i>Salix atrocinerea</i>	Sahats iluna		
<i>Quercus ilex</i>	Artea		
<i>Arbutus unedo</i>	Gurbitza		
<i>Sorbus aria</i>	Hostazuria		
<i>Sorbus aucuparia</i>	Otsalizarra		

1. taula. Leheneratze ekologikoko lanetan erabiliko diren espezieen zerrenda. Ez da zerrenda zehatza; aldatu egin daiteke, inguruabarrak zein diren, eta espezie gehiago sartu ahal izango dira, edo espezieen bat ordeztu. Nolanahi ere, beti izango dira tokiko genetika duten espezie autoktonoak.

Organismo publiko eta pribatuen aurrean egin behar diren izapideak, ingurune fisikoan errekonozimendu-bisita egitea edo dokumentuak idazteko eta agiri honen xede diren jarduerak egiteko behar den informazioa biltzeko egin behar diren lan osagarriak direla-eta, ez da ordainketa gehigarri egingo. Aipatu jardura horiek eta kartografia prezioen koadroko unitate bakoitzeko prezioaren barruan daude.

2.3 Lanen jarraipena egitea

Kontratu-arduradunak lanen jarraipena behar bezala egiten dutela ziurtatzeko, bilerak egingo dira laguntza teknikoaren lote bakoitzeko koordinatzailearekin. Hilean bilera bat egingo da gutxienez. Unera arte egindako lanen berri emango da eta hurrengo hilabeteetan egingo diren lanak planifikatuko dira jarraipen-bilera horretan. Jarraipen-bileren akta egingo da. Egindako lanen aurrerapenaren aldizkako txostena izango da, eta hileroko ziurtagiriak kalkulatzeko oinarri hartuko da.

Gainera, kontratu-arduradunak eskatzen dituen bilerak egingo dira, egoerak hala eskatzen duenean.

2.4 Obra eta proiektuen aurreikuspena

Behar diren bitartekoak hornitzeko, kalkulatzeko da 15 eta 25 obra artean egin daitezkeela aldi berean batez beste kontratuan zehar. Kalkulatzeko da, halaber, 2 eta 8 proiektu artean idatzi daitezkeela aldi berean batez beste.

Gutxi gorabeherako zifrak dira, eta lizitatzailerak oinarri har ditzake behar bezala kalkulatu ahal izateko bere lantaldeen lan-karga. Ez dute kontratu-izaera eta, benetako baldintzak zein diren, baliteke nabarmen aldatzea kontratuan zehar.



2.5 Dokumentuak entregatzeko formatua

Dokumentuak kontratu-arduradunari aurkeztuko zaizkio eta hark berrikusi egingo ditu behin betiko editatu baino lehen. Egileek eta lote bakoitzeko koordinatzaileak (edo eskuordetutako teknikariak) sinatuko dituzte dokumentuak. Koordinatzaileak bermatuko du lanen kalitatea eta banan-banan ikuskatuko du dokumentu bakoitza.

Orokorrean, behin betiko dokumentu guztiak formatu digitalean entregatuko dira, bai formatu ireki edo aldagarri orokorretan (MS Word, MS Excel, AUTOCAD, shape), bai PDF formatuan.

Dokumentua jasoko duen organismoak dokumentua formatu digital jakin batean entregatzea eskatzen badu (adibidez, ingurumen-ebaluazioaren prozedurak hasteko direnak), eskatutako formatuan entregatu beharko du dena delako dokumentua kontratistak, organismoak adierazitako jarraibideei jarraituz. Formateatzeko lan guztiak dokumentua prestatzeko prezioaren barruan sartuta daude.

Gainera, zenbait txostenen kopia inprimatuak entregatuko dira, horiek jasoko dituen organismoak hala eskatzen badu edo inguruabarrak direla-eta hala egin behar bada.

Testu literalak diren dokumentuen euskarria DIN A4 neurriko orriak izango dira. Koadernatutako bolumenetan sartuko diren planoek DIN A3 neurria izango dute.

Proiektuen egitura eta edukiak BBUPek zehaztutako formatura egokitu beharko dira.

Horrez gain, kontratuaren xede diren lanak egin bitartean egin edo lortu diren eta azken dokumentutan sartu ez diren azterlan, txosten, kartografia, datu eta abar guztiak entregatuko zaizkio BBUPi.

3. GIZA BALIABIDEAK

Lizitatzailerik esperientziadun lantaldeak eskaini beharko dituzte, kontratua sinatzen denetik aurrera lanak hasteko behar bezain koordinatuak eta prestatuak.

Kontratistak bere eskaintzan zehaztuko ditu lantaldearen osaera, kide bakoitzaren funtzioak eta horien dedikazio-maila.

1. LOTEA

Giza baliabide hauek beharko dira gutxienez:

Koordinatzailea

Titulazioa eta esperientzia:



- Administrazio-klausula partikularren agirian zehaztutakoaren arabera.

Funtzioa:

- Kontratuari esleitutako lantaldea zuzendu eta koordinatzea.
- Kontratuaren hiru loteen lanak koordinatzea lan horiek proiektu edo jarduera berean egin behar direnean.
- Kontratu-arduradunaren eta laguntza teknikoaren arteko solaskidea izatea.
- Kontratu-arduradunari ingurumenaren arloko etengabeko aholkularitza ematea azterlan, proiektu eta planak idazteko fasean, horien izapide-administratiboak egitean eta obrak egitean.
- Azterlan, proiektu eta planak idatziko dituzten ingeniari-taldeen eta ingurumen arloko laguntza teknikoaren arteko informazio-trukea koordinatzea.
- Ingurumen-dokumentu guztiak egiteko prozesua ikuskatzea eta horien edukia kalitatezkoa eta egokia dela ziurtatzea.
- Hilero egiten diren lanen zerrenda baloratuak, bileren aktak eta jarraipen-txostenak egitea, eta kontratu-arduradunari helaraztea.

Obra-teknikariak (3)

Titulazioa eta esperientzia:

- Administrazio-klausula partikularren agirian zehaztutakoaren arabera.

Funtzioa:

- Kontratuko obra guztien ingurumen-jarraipena egitea, behar izan daitezkeen landa-bisitak eta kabinete-lanak barne (aktak eta txostenak egitea, esate baterako).
- Kontratu-arduradunari aholkularitza ematea eta neurriak hartzea obran, inguruak jasan ditzakeen inpaktu negatiboak murrizteko.
- Kontratistak obrak egin bitartean egin behar dituen ingurumen-dokumentuak berrikustea: Obrako ingurumen-plana, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko plana eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren azken txostena. Azken horrek zuzendu behar diren alderdiak jasoko ditu, bai eta egokiak diren hobetzeko proposamenak ere.
- Hirugarrenek egindako proiektuen eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren azterlanak berrikustea eta berrikuspen-txostena egitea. Azken horrek zuzendu behar diren alderdiak jasoko ditu, bai eta egokiak diren hobetzeko proposamenak ere.
- Obren azken faseko leheneratze- eta landareztatze-lanen jarraipena eta kontrola egitea, eta kontratuak irauten duen bitartean duten bilakaerarena ere bai.
- Obra bakoitzean lortutako ingurumen-adierazleak (kudeatutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta landare-espezie inbaditzaileen kokapena, besteak beste) dauden datu-baseetan erregistratzea, bai eta kontratua egikaritzeko aldiak sortuko direnetan ere.



2. LOTE A

Giza baliabide hauek beharko dira gutxienez:

Koordinatzailea (1)

Titulazioa eta esperientzia:

- Administrazio-klausula partikularren agirian zehaztutakoaren arabera.

Funtzioa:

- Kontratuari esleitutako lantaldea zuzendu eta koordinatzea.
- Lote honetako lanak 1. lotekoekin koordinatzea, biak aldi berean egiten badira.
- Kontratu-arduradunaren eta laguntza teknikoaren arteko solaskidea izatea.
- Kontratu-arduradunari lurzoru kutsatuen eta hondakinen arloko etengabeko aholkularitza ematea.
- Ingurumen-dokumentu guztiak egiteko prozesua ikuskatzea eta horien edukia kalitatezkoa eta egokia dela ziurtatzea.
- Hilero egiten diren lanen zerrenda baloratuak eta bileren aktak egitea, eta kontratu-arduradunari helaraztea.

Lurzoru-teknikariak (2)

Titulazioa eta esperientzia:

- Administrazio-klausula partikularren agirian zehaztutakoaren arabera.

Funtzioa:

- Kontratu-arduradunari lurzoru kutsatuen eta hondakinen arloko etengabeko aholkularitza ematea.
- Lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioren bat duten edo izan duten kokalekuetako lurzoruen hondeaketa gainbegiratzea, behar izan daitezkeen landa-bisitak eta kabinete-lanak barne (aktak eta txostenak egitea, esate baterako).
- Lurzoruaren eta lurpeko uraren laginak hartzeko kanpainak diseinatu eta egitea, lurzorua ikertzeko bai proiektu-fasean bai obra-fasean. Lortutako emaitzak analizatu eta ondorioak ateratzea, lurzorua kutsaduraren prebentzio eta zuzenketari buruzko araudiko betebeharrak betetzeko.

3. LOTE A

Koordinatzailea

Titulazioa eta esperientzia:

- Administrazio-klausula partikularren agirian zehaztutakoaren arabera.

Funtzioa:

- Kontratuari esleitutako lantaldea zuzendu eta koordinatzea.



- Kontratu-arduradunaren eta kontratuaren adjudikaziodunaren arteko solaskidea izatea.
- Kontratu-arduradunari kontratuaren xede diren arloei buruzko etengabeko aholkularitza ematea.
- Hilero egiten diren lanen zerrenda baloratuak eta bileren aktak egitea, eta kontratu-arduradunari helaraztea.



4. LANAK NEURTZEA ETA ORDAINTZEA

Lehiakideek administrazio-klausula partikularren agiriko prezioen koadroetan zehazten diren prezio unitario finkatuko dituzte. Hileroko ziurtagiriak kalkulatzeko erabiliko dira prezio unitario horiek. Horretarako, adjudikaziodunak hileroko egindako lanen zerrenda baloratua aurkeztu beharko du 25a baino lehen, BBUPEk zehaztutako formatuan.

Prezioak berberak izango dira kontratu osoan, baita luzapenetan ere, luzapenik baldin badago.

Aurreko prezio unitarioetan dokumentuak egiteko, joan-etorrietarako, dietetarako, aseguruetarako, lizentzietara eta abarrerako behar diren gastu pertsonal eta material guztiak sartzen dira.

Lehiakideek, beraien eskaintzetan, unitate gehigarriak sartu ahal izango dituzte prezioen koadroan. Nolanahi ere, unitate gehigarriak ez dira aintzat hartuko guztizko zenbatekoa kalkulatzeko.

1. lotean, 1.1 kontzeptua (ingurumen-zaintzaren hilabetea) hiru obra-teknikarik lanaldi osoan egindako lanei eta koordinatzaileak egindakoei dagozkio, eta benetan egindako lanorduen arabera ordainduko da. Hori horrela izanik, hilabete oso bati dagozkion lan-orduetara iristen ez bada, dagokion zatikia bakarrik ordainduko da. Beraz, obra-teknikariek egiten dituzten orduak kontrolatu beharko dituzte adjudikaziodunek (koordinatzailearen orduak 1.1 kontzeptuaren prezioan sartuta daude). Hileroko zerrenda baloratuan behar adina justifikatu behar da aurreko hori, behar diren dokumentu eta kontrolen bidez. Kontzeptu horren barruan, hauek sartzen dira: obren jarraipena egiteko behar diren landa-lan guztiak, txostenak idaztea (ikuskapen-aktak, hileroko jarraipen-txostenak, obrak hasi aurreko txostenak, datu-baseen eguneraketa...), kontratistaren ingurumen-dokumentuak berrikustea eta, orokorrean, teknikari hauei dagozkien eta 3.1 atalean zehazten diren zeregin guztiak.

Prezioen koadroko beste kontzeptu batzuetan, egingarria bada, printzipio bera aplikatuko da; hartara, unitate osoa edo dagokion zatikia ordainduko da, egindako lanen benetako irismena zein den.



Bilbo, 2024ko azaroak 7

Ontzat emana

Kontratu-arduraduna

JTBko zuzendariordea

Izpta.: Jose M^a García Barcina

Izpta.: Fernando Ortega Conde